

# Letren munduan barrena Karmele Jaio idazlearekin

Karmele Jaio idazleak ipuinak, eleberriak eta poesia ere idatzi ditu. Eguneroko gaietan jartzen du arreta; horrela egin du *Aitaren etxea* azken nobelan ere, eta arrakasta handia lortu du. Bere liburuez eta literaturaz ari da elkarrizketan.



*Karmele Jaio idazlea gasteiztarra da. Bere azken eleberriarekin, 'Aitaren etxea', Euskadi Literatura Saria irabazi du Argazkia: Ikasbil*

Bideoa ikusi eta erabaki zein den kasu bakoitzerako amaiera egokia.



<https://labur.eus/F52QJ>

## 1. Karmele Jaio kazetaritza ikasi zuen...

- a) kazetari izan nahi zuelako.
- b) letren munduarekin lotura zuelako.
- c) idazle izan nahi zuelako.

## 2. Jorratzen dituen gaiak...

- a) inguruan ditugu, baina egunerokoan ez dira ikusten.
- b) ezkutatu egiten ditugu egunerokoan ez ikusteko.
- c) egunerokoan agerian dauden gaiak dira.

## 3. Berak beti esan du....

- a) ipuingile dela beste ezeren gainetik, baita orain ere.
- b) ipuingile dela, baina orain nobelagile da gehiago.
- c) ipuingile dela, baina orain ez luke hori hain ziur esango.

**4. Aitareen etxeak zergatik izan du arrakasta?**

- a) Pil-pilean egiteko errezetak jasotzen dituelako.
- b) Gaur egun eztabaida publikoan dauden gaiak jasotzen dituelako.
- c) Maskulinitatea nola garatu jasotzen dituelako.

**5. Euskal literatura nola ikusten du?**

- a) Krisiak jota, bai sorkuntza aldetik baita kontsumo aldetik ere.
- b) Sorkuntza aldetik krisiak jota, baina eskaera aldetik ongi.
- c) Sorkuntza aldetik ongi, nahiz krisiak eragina izan dezakeela aipatu.

**6. Sariak jasotzea....**

- a) poztekoa da, baina ez da helburua, bere kasuan.
- b) beharrezkoa da, helburu horrekin idazten baitu berak.
- c) pozgarria da, baina ez du egindako esfortzua konpentsatzen.

**7. Paperean irakurtzea gustatzen zaio,...**

- a) eta edonora joanda ere beti eramaten ditu liburuak paperean.
- b) baina paperaz gain e-book-a ere erabiltzen du.
- c) baina e-book-a atera zenetik gero eta gehiago erabiltzen du.



*2020ko Euskadi Literatura sari-banaketa. Argazkia: Karmele Jaio*

# ERANTZUNAK

1. b / 2. a / 3. c / 4. b / 5. c / 6. a / 7. b

## TRANSKRIPZIOA

### Zein da Karmele Jaio?

Bueno, nire burua aurkeztu behar badut esango nuke, bueno, txikitatik edo beti letren mundua asko gustatu zaion pertsona bat naizela; kazetaritza ikasi nuen, hain zuzen ere, ez kazetari izan nahi nuelako, baizik eta letrekin zerikusia zuelako eta irakurtzeko eta idazteko gogo hori nik uste dut beti izan dudala, ez? Eta, bueno, ba gaur egun horretan aritzen naiz, ez?

### Zerk inspiratzen zaitu idazteko garaian?

Egunean inguruan ikusten ditudan gauzetan, ba gauza asko ikusten ditut edo eguneroko, nik uste dut, normaltasunak gauza asko estaltzen dituela azpian, ez? Eta nire, agian, gai nagusia da hor azpian dauden gauza hoiak ba azaleratzea, ez?

### Zein esparrutan sentitzen zara erosoan?

Nik beti esan dut ipuingile naizela guztiaren gainetik; beti, bueno, idazten hasi nintzenetik ere ipuinak izan dira nire, bueno, hor gehien idatzi ditudanak eta irakurle bezela bebai (ere bai). Gertatzen da, bueno, *ya* (jada) hirugarren, *Aitareen etxea* izan da hirugarren nobela eta, orain, nobelan ere sentitzen dut nire burua, bueno, ez eroso, baina gustora batzuetan eta, ez dakit, ez nuke esango hain ziur, lehen esaten nuen bezala, ipuingile naizela gehiago nobelagile baino. Bueno, bakoitzak bere gauza dauka, bere gauza ezberdinak ditu, eta guztietan aurkitzen dut zerbait, ez?

### *Aitareen etxea* zure azken lanak harrera ona izan du...

Bai, nik uste dut, liburuak izan duen harrera onaren arrazoietakoa bat izan dela momentua, zein momentutan agertu den, nik uste dut, esan duzun bezala, pil-pilean dauden gai batzuk jorratzen ditu (dituela), duela urte batzuk ez zeudenak hain eztabaida, hain publikoan ez? Maskulinitate ereduak, rolak, estereotipoak, nola markatzen gaituen txikitatik ikasi dugunak, erakutsi digutena gizon ala emakume izan, horren arabera. Nik uste dut hori beti egon da (dela), baina gaur egun inoiz baino (gehiagoa azaleratzen da), bueno, azalean dago, ez? Azaleratzen da gehiago, eztabaida publikoan dago.

### Zein egoeratan dago euskal literatura?

Nik esango nuke oso fase onean sorkuntza aldetik, behintzat, ez? Beste gauza bat da murgilduta gauden krisi honek zein eragin izan duen kulturaren eta baita literaturaren, baina sorkuntza aldetik, nik uste dut, oso-oso egoera onean gaudela.

### Euskadi Literatura Saria jasotzeak nolako eragina izan du zugaran?

Bueno, zeure etxean errekonozimendua jasotzea beti da pozgarria, ez? Bai sarien bitartez, bai bestelako errekonozimenduen bitartez. Ez dira zure laneko, hau da, helburuak; hau da, ez dugu idazten, ez nik behintzat, sarien bila edo, baina bai dira bakarka egiten duzun lan baten eta esfortzu handiz egiten duzun lan baten, ba, bueno, ematen zaion erantzuna edo aitopena eta, bueno, hori beti da onerako, ez?

### Euskarri digitala edo papera, zein duzu nahiago irakurtzeko?

Nahiago papera; gusturago (gusturago) irakurtzen dut paperean, askoz, tablet, tabletean ez, e-book-ean baino. Dena den erabiltzen ditut biak, bestea ere, e-book-a ere, oso lagungarria delako bidaiatzen dudanean, edo bidaiatzen genuenean, edo bueno leku batetik bestera joan behar nuenean, ba hor gordeta edukitzea hainbat liburu, eta pisua eta guzti hori, praktikotasun horregatik, ez? Baina egia da ba niri gustatzen zaidala irakurtzea papera, paperarekin, nahiago dut.